



Transgresioaren irudikapena egunerokotasunarekin lotua dagoenean interesatzen zait”

Izibene Oñederra Aramendi, zinemagilea

Satorrak bogan daude zineman. Izibene Oñederraren satorrek, euren sinbologia nahiz konnotazio propioak dituzte ordea, eta deitu ere, bere molde propio zein ederrez deitzen ditu. Animazio irudietan islatu ditu eta mikroipuinen gisara plazaratu du *Lursaguak*. Zinemaldian aurkeztu eta munduan barrena dabilta lur sakonetatik aterata.



GORKA EROSTARBE LEUNDA



DANI BLANCO

Animazioa forma hartzen joan zen egin ahala. Abiapuntuan jatorri desberdineko irudiak nituen, tartean argazkitara ekarritako arbasoen irudi bakanak, marrazkitan jasotako emakumeen erretratuak... filmeko eszena moduan pentsatu nuen irudi bakoitza, jatorri desberdineko pasadizoa jasotzen zuen txatala. Literaturarekin analogia egingo banu mikroipuinen bilduma itxura izango luke, elkarren artean lotu daitezkeen narrazioek osotasunari zentzua ematen diotenak”. Izibene Oñederrak (Azkoitia, 1979) Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen *Lursaguak* lan berriena. 11 minutuko lan intentsoa da; erraietakoa, mugitua, iradokitzailea. Geroztik munduan barrena dabil. Bosnian, Mexikon, Perun, Buenos Airesen, Madrilan... eta egunotan Bilboko Zinebin ere bai. Lan horretaz eta zinema nahiz arte sorkuntza ulertzeko moduez aritu gara egilearekin.

Arte sorkuntzan narratiba desberdinak arakatzea interesatzen zaizu?

Geroz eta gehiago interesatzen zait helburu bezala ez edukitzea narratiba konbentzionalik. Hizkuntza zinematografikoa menperatzen dutenak badaude, hori kontrolatu behar izatea pisu handia da niretzat. Abiapuntuan gidoiak oso ondo landua izan beharko luke, eta horrek izugarritzko zama sortzen du nire lan prozesuan. Buruan bueltaka ditudan ideiak

ordenatzeko, arrazoia erabili beharrean eta ulergarri egitearekin sinplifikaziora jo beharrean, nahiago dut senari jarraituta irudien lotura bilatzea, eta horretan ari naizela, modu naturalean sortzen ari den eraikuntza narratiboari kasu egitea, saiatzuz ez kopiatzen aurreko ezer. Bideak egitea, sortzen utzi ideien etorriari eta beraien arteko lotura ia inkontzienteei, irregularra izango den zerbait bideratzeko, amorfoa ziurrenik, baina fidela izanik kontatu nahi nuen izaki konplexu horri.

Transgresioak gorri kolorea dauka? Zure filmean gorriak presentzia zabala dauka, bai satorretan, bai emakumeen irudietan...

Ez dakit ba... ez da nahita egindako aukera. Egia da gorri kolorearen gama desberdinekin lotu daitezkeela filmean agertzen diren gertakizun batzuk. Hildako sator-kumeak eta pontxetan igerian dabiltzan tanpoiak, diskoko argiak ere bai agian, bukaerako obarioak irudikatzen dituzten landare basak... Uste dut gorria kasu guztietan kontrastean dagoela beste koloreekin, dela berdea, dela hori bizi-biziak eta kontraste bortitzak ematen diola indarra.

Transgresioaren irudikapena egunerokotasunarekin lotua dagoenean interesatzen zait, egunerokoa zartatzen duen umore beltzezko ekintza denean, kontzientzia hartzera garamatzanean... ez-kutuan ateratako argazkia apurtu edota

hildako satorrak oparitzea hil zituztenei. Hala ere, Buenos Airesko feministen performancea, tanpoiak ketchup-ez busti eta euren erakusketa zabaltzean eskaintzea handia iruditzen zait ... Gorriaren erabilera kasu horretan bai izan daiteke transgresioaren sinbologia garbia.

Zinema transgresiorako tresnatzat duzu?

Egia da nire posiziotik, animaziozko film laburrak egitea asko kostatzen zaion egilea naizen aldetik, kontaktzen dudanak bai ala bai merezi behar duela kontaktua izatea. Ezin naiz ibili gaur egunean egiten den horri begira, edo ez behintzat egiteko modu horrek baldintzatuta. Pentsaezina litzateke sariak biltzen dituzten filmei begira egotea tankerako animazioak egiteko. Filmak egiten “denbora galtzen badut” eginbeharrak bultzatzen nauelako da. Kontatzeko desioak, agian kontaktzearen bitartez buruan dabilkidan hori ulertzeko desioak.

Uste dut lengoaia bat bilatu behar izaten dudala justu istorio hori kontatzeko, eta nik hautatu baino gehiago lan prozesuak ematen didala lengoaia hori. Ez dakit den zehazki zinematografikoa, den plastikoa, bien arteko erdibidean dagoen... Elementu horiek egiten dute lengoaia hori izatea transgresibo samarra.

Bestalde, uste dut film labur horretarako neurri egokia dela, eskatzen duen denbora, aurrekontua, aurrera eramate-



ko taldearen lan baldintzak bermatzea bideragarria delako, eta hortaz transgresio tresna egokia da.

Lehen-lehenik, irudi bat datorkizu burura, marrazki bat?

Ez, irudi pila bat datozkit burura, senari jarraituta analogiak egiten hasten naiz, askotan nahigabe. Kasu honetan argazkiak izan dira abiaburua eta bizitzako pasadizoak, memorian gelditu direnak baina haurra nintzela gertatu zirenez erdizka gogoratzen nituenak. Gogoan nituen gure amamaren baserriko argazkiak, gure ama nerabe zela ateratakoak haietako batzuk, eta banekien argazki horiek banituela, gainera, txuri beltzekoak, konposizio aldetik zaindu gabeak baina niretzat oso ederrak; eta giroa, garaia, tokia ulertzeko edota neurerara interpretatzeko iradokitzaileak.

Memorian iltzatutako argazkien artean daude filmeko lehen eszena eginarazi zidatenak: gogoratzen dut nire ama sukaldean kafea hartuz eta *ducadosak* erretzen, eta argazki bat puskatzen. Akordatzen naiz argazki harekin, oso umea nintzela gertatu bazen ere pasadizo hura; orduan, neuk ere atzera egin dut, eta fikzioaren bitartez landu dut argazki hori, berreraiki egin dut. Gure ama nerabe zeneko baserriko argazkiak, aldiz, gordeak ditut, eta hor jardun dut antzeman nahian nolakoa izango zen neska gazte hura baserri giroan. Are, batzuetan etortzen zitzaidan Marisol kantak izango zituela buruan, eta irudikatzen nuen baserritar izan nahi ez zuen gazte hura Marisol imitatu nahian. Bazen baserritarra, eta ezin zuen hortik erabat deslotu, baina era berean, bazituen beste erreferentzia batzuk, eta beste erreferentzia horiek ere egin zuten bera zena.

Lehen eszena aipatu duzu; bukaerakoan emakume bat ikusten da korrikan badoana. Emakumearen liberazio sekuentziak dira?

Lehenengoa ez da emakumearen liberazio sekuentzia, baizik eta bere gogoaren kontra erretratatu eta betirako izoztu nahia, eta argazkia ateratzen duen egilea fokuz

kanpo dago, hiltzaile baten gisara. Michael Hanekeren *Happy end* filma ikusarazi zidaten eszena erakutsi nuenean. Hanekeren filmaren hasieran ikusten da norbait ari dela familia bat grabatzen eta ez dakigu zein den, baina grabatzen duenaren arabera egilearen erretratua egiten hasten gara, zein izango den, zertarako... Nire animazioan argazkilari gehiago ere agertzen dira eta argazkilariaren aurrean hain pasibo ez dauden emakumeak, euren betikotasunera pasatzeko modua gehiago aztertzen dutenak. Bukaeran emakumeak dira argazki egileak: biluzirik daude, baina ez dira objektu bilakatzen. Bilakaeraren irudikapen moduan ulertu daiteke filma. Erreminta horrek ematen die, nolabait, gidari izateko aukera, ez beste norbaitek gidatuak.

Euskal matriarkatu mitikoa zalantzan jartzeko saiakera bat ere bada filma?

Ez dakit, konplikatu da hori horrela denik esatea. Amaren pertsonaiaarekin umorearen bidez estrategia bat garatzen da baserri giroko errealtate zurruna zartatzeko. Baserriko eszena da hori, filmeko mugarrria, gabon afaria, gizonezkoak kopa edaten eta *fariak* erretzen alde batean, haurrak bes-
tean, eta emakumeak aparte... Gu umeak ginen garaiko telebistan Sabrina dago kantuan, denok gaude adi ea titia ageriko zaion edo ez; eta gure amari okurrizten zaio *fariak* kaxan bilduta hildako satorra ateratzea mahai gainera, aurrez umeen aurrean bide bazterrean hilda utzi zituen osabari oparitzeko. Emakumearen irudi hori berritzailea da, apurtu egiten du estereotipoarekin, zirrikituak bilatzen ditu bere bidea egiteko.

Zuretzat ere, animazioa lantzea, artea azken batean, errealtatea zartatzeko tresna bat da?

Baliagarriak zaizkit emakumearen irudikapen hori eta filmean agertzen diren besteak, eredugarritzat ditudan emakumeen ekintzak egunerokoan bizitzen laguntzen didatelako eta lan sortzaileetan jarraitzeko beta ematen, neure burua guztiz arraroa kontsideratu gabe. Garrantzitsua da zeu-

re antzekoekin harremanetan egotea, historiako beste momenturen batekoak izan edota kilometro askotara badaude ere. Hortik Hélène Cixousen sator edo lursaguren ideiarekin defentsa. Eta filma laburtzeko erabili dudana aipua: "Inoiz ezagutu ez den espezieko milioika lursagu, milaka urteko kulturaren oinarri kontzeptuala birrintzen ari diren garai horretantxe bizi gara".

Zinemara arte ederretatik hurbildu zara. Oztopo asko aurkitu dituzu bidean?

Oztopoak baino gehiago, esango nuke bazterretik, mugetatik lan egiteko aukera izan dudala, batzuetan bakar xamarrik ere airtzen naizen arren. Zorteduna sentitzen naiz egin ditudan filmak oihartzuna izan dutelako, eta nazioarteko zinema jaialdietan interesa pizten dutelako.

Arteleku ondo ezagutu zenuen eta Tabakaleran aurkeztu duzu *Lursaguak*. Nola bizi izan duzu batetik besterako trantsizio hori?

Urrun ikusten dut hori guztia. Saiatu izan naiz neure kabuz sortzen proiektuak, bes-teen menpekotasunik gabe eta zinema egiteko lehengaia betidanik marrazkia izan dut. Elementurik merkeena zen espresio-bide moduan aukeratu nuen iraganean, gero *Hezurbeltzak* nire lehenengo animazio filma bilakatuko zen haren jatorrian sortu nituen zientoka marrazki. Denborarekin ohartu naiz, menpekoak garela gizakiak definizioz; eta garrantzitsua dela besteen indar sortzaileak proiektuak aurrera ateratzeko. Hala ere, ez dut behar makinaria konplexurik pelikula egiteko, denbora baizik, eta talde txikitari lan egitea gustatzen zait, taldeko bakoitzari askatasuna emanik bere erara ideiak garatzeko. Talde handian eskuetatik hanka egingo zidan metodologia honek, baina eremu murriztean potentzial handia du.

Arteleku ondo zegoen, noski, beste jendea aldameneko geletan zebilelako euren proiektuetan barneratuta. Hala ere, zentroa azken fasean harrapatu nuen, pixka bat pertsona helduen antzera iraganeko garai hobeagoi begira zegoenean. Uste dut proiektuaren dekadentziaren pisua bizkarrean eraman genuela han lanean geundenok denbora tarte batean. Bestaldekik, baliagarria izan zen, hainbat ekimenetan parte hartu genuelako urte haietan, MAPA taldearen barnean bestelako zinema ikusi eta erakusten genuen, hainbat nazioarteko animatzailearen eskolak jaso genituen...



Ez da arriskua baloratzen, kultura txiki batek esportatu dezakeen berezitasuna izan daitekeen arren”

Eta Tabakalera, nola ikusten duzu?

Apenas ezagutzen dudana, baina ez nago desiratzen sortze guneen erdigunean egotea. Gustukoa dut periferiak ematen duen ezkutatzeko aukera eta askatasuna. Errazagoa da kontzentrazioa eta norberaren beharrei begira lan egitea. Hala ere, horrek eskatzen du, sorkuntza prozesutik aparteko lan baldintza duinak izatea, filma posible egingo duen laguntza izatea eta behin obra amaitzean ikusgarritasuna emango dion makinaria bat egotea filma ulertu eta zabalduko duena.

Arteleku eta Tabakaleraren bitartean Kalostra ere egon zen. Itxi egin zuten.

Bai, itxi egin zuten, baina ireki zute-nean ere ez gintuzten nahi. Sentitu dut animatzaileak arte aplikatua egiten dugula, ez gara zinemakoak, ez gara artearen ingurukoak, ez pinturakoak eta ez eskulturakoak ere, jakina... Ez ditugu umeentzako filmak egiten bereziki, beraz zeinrentzako egiten dugu animazioa? Periferian mantentzen gaituzte, eta hori oso ona da arautik aske dauden sorkuntzetarako, baina bestalde... Beste kultura batzuetan animazioa barneratua dute, Europa ekialdean esaterako.


Erakundeen eta artearen arteko harremanaz zein iritzia duzu?

Susmoa dut gaur egun garrantzi handiagoa duela erakusketa edo Zinemaldia pentsatzen duenaren lanak gero edukiz beteko duen artistaren lanak baino. Alde horretatik komisarioa da artista, pentsatzailea. Bere ikus-ildoak urrea balio du eta inguruan artista edo sortzaileak lerrotatzen dira atentzio eskean. Nire lanerako erakundeak diru laguntza ezinbestekoa da, suizida litzateke diru partidariak gabe lanean hastea. Era horretara menpekota naiz, erakundeak diru laguntzetarako jartzen duen epaimahaiaren menpekota. Garai bakoitzean ospea jasotzen duten zinema tendentzien arabera, nire lana balioztatua egongo da edo ez zaio garrantzirik emango. Herri txikia izanda, uste dut garaika proiektu kultural konkretuak defendatzen direla, musikari hau, zinemagile hau, idazle hau... Ez dakit erakundeen hautua den aukeraketa zorrotz hori edo barrurago dugun zerbait den, bat nabarmentzea eta erakuslehoan jartzea, bestelako proiektuak itzalera eramanez. Hala ere, egile sakrifikatua naizen aldetik, nahiko frustragarria da. Eta hala ere esker onekoa izan behar dut, eskatu dudana bakoitzean jaso dudalako babes. Perspektiba gutxi dagoela iruditzen zait,

autore-lanak diren horiei babes inkondizionalik ez zaiela ematen. Harribitxiak diruditen proiektuak diru laguntza jasotzeko erreguka ibiltzen direla antzematen ditut nire inguruan, behin proiektua egin da dagoenean, lan horrek nazioartean izan dezakeen oihartzunaren indarra ez dela aski aurreikusten erakundeetatik. Ez da arriskua baloratzen, kultura txiki baten esportatu dezakeen berezitasuna izan daitekeen arren. Ez gara onenak izango Hollywoodeko aurrekontu handiko filmak egiten, baina izugarritzko potentziala izan genezake desberdinaren ikuspuntutik begiraturako istorioei formak ematen.

Irakasle zara EHUn, Arte Ederren fakultatean. Unibertsitateak, akademiak zer ematen dizu sorkuntzarako, eta zer kendu?

Arte Ederretan eskolak emateak gauza asko ematen dizkit, hasteko eta garrantzitsuenak, lanbide serioa... Bestetik, etorkizuneko artisten proiektuak aurrez aurre ikusteko aukera ematen dit, entrenamendu modukoa, eurei lagungarri izango zaizkien ideiak garatzeko, betiere euren ikuspuntua ulertzen ahaleginduz. Bestalde, kontzentrazioa kentzen dit, ez delako posible animazio proiektuak eskatzen didan denbora eta dedikazio jarraitua edukitzea. ●



Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketa
2019

Azaroak
17 17:00
Arrasate. Uarkape pilotalekua

Erñaut Martikorena Lizaso
Agin Laburu Rezola
Nerea Elustondo Plazaola
Unai Mendizabal Jauregi
Iñaki Apalategi Astigarraga
Unai Gaztelumendi Arandia
Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar








Finalaurrekoak

Antolatzailea



Laguntzailea



www.bertsotzale.eus